

noaua



**Omenaldi hunkigarria
fusilatu usurbildarrei**

**Matxura bat,
Aranerrekako isurketen
atzean**

**Buztinzulo biziberritzeko
lanetan**

6. or.

KAFE GARAIA

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

NOAUA!ren sorreran hartu zuen
parte. Hik Hasi aldizkariko
editorea da gaur egun

noa.ua

jarraitu gure sare sozialak



www.noa.ua.eus



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarriko bultzada izan zuen Noa.ua Kultur Elkartaren sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaino zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronka parte hartzea animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!
25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzen automatikoki bazkideztza arrunta izatera pasako da

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noa.ua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta alortopenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldirikaria astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



ESKANEATU



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noa.ua.eus/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkidetza mota

☐ Arrunta (40 €)

☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noa.ua.eus

Albisteak iruditan

Usurbil, gerra garaiko iragarki batean

1936ko gerra garaikoa, ez da Usurbilen ateratakoa, baina herri honekiko lotura zuzena du, atzean dagoen iragarkiari erreparatu besterik ez duzue; “Sidras y chacolis Illarramendi y Cia, Usurbil, Guipuzcoa”. Orain arte ezkutuan zen irudia Txertoa argitaletxeak plazaratu eta eskuragarri jarri digu. “Argazkian, erdi-erdian, Condorreko bi kide ageri dira, bata eserita eta bestea zutik, betaurrekoak kopetan. Azkenean, ez genuen “La Verdad Alternativa”-n argitaratu, beste batzuen aldean ez zitzaigulako behar bezain adierazgarria iruditu”. Orain ordea, tropa faxistak Usurbilen zireneko 85. urtemuga historiko honen harira argazkia plazaratzea erabaki dute, argibide gehiago jasoko dituztelakoan. “Dena interesatzen zaigu: testuingurua, argazkia non ateratakoa izan daitekeen (seguruena ez Usurbilen) kamioia, Illarramendi enpresa...”.



Argazkia: Igor Urrestarazu.

Laburrean

Eremu horitik berdera igarotzeaz

Hala zen Usurbil aste hasieran, covid19aren intzidentzia 63,41eraino murriztu ostean. 60tik behera jaitziz gero eremu berdera igaroko litzateke udalerrri hau. 3 kasu zenbatu ziren guztira aurreko aste osoan.

Autobus zerbitzuak, berrezarrita

Uztailean leian eten ostean, Udalaren eta herritarren eskaerei kasu eginez, ospitaleetako autobus zerbitzua berrezarri dute. Bestalde, asteburu gauetako autobus zerbitzuak ere bai. Informazio gehiagorako: lurraldebus.eus/900.300.340.

221etik 231ra igo da langabetu kopurua

Emakumezko langabetu gehiago izaten segitzen du udalerrri honek; 133 langabetu emakumezko abuztuan eta 98 gizonetzko langabetu. Erregistraturiko kontratu kopurua 308tik 227ra murriztu da, uztailetik abuztura.

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Etxetik kanpora zer?

Gaur egun guraso izatea ez dela erraza esaten dute. Nik uste dut orain dela urte, belaunaldi edo mende batzuk ere ez zela erraza izango. Baina tira, gaur egungo garaietan kokatuko gara.

Seme-alaben adin guztiek dituzte alderdi gozagarriak eta kezka sortzen diguten beste alderdi batzuk. Zenbait kezka gure barrutik sortutakoak izaten dira eta beste zenbait kanpotik eragindakoak. Eta kanpoko horiekin batzuetan zerbait egin dezakegu eta beste batzuetan zaila izaten da.

Uda honetan pasatako bi gertaera hauek horren lekuko dira. Alegia, kanpoko eragin horren aurrean gurasoen heziketa eta ahalegina txiki geratzen dela eta egindako heziketa lana gutxietsia edo baliogabetua geratzen dela. Kasu horietako bat herri txiki bateko familia batena da. Alabak 12 urte egin ditu eta aldameneko herri handiago batean hasi da DBHko 1. maila egiten. Irailan aurrez aurre lagun berriak ezagutu aurretik, maila horretako gelakideen whatsapp taldea sortu zuten udan.

Taldea sortu eta egun gutxitara, familia honetako alaba horri irudi pornografikoak ailegatu zitzaizkion taldeko whatsappetik. Amak taldetik atera zuen alaba, inpotentzia handiarekin eta alaba pornografia-



"Nola da posible 14 urteko nerabe bati ardo botila bat oparitzea?"

AINHOA AZPIROTZ
"Sarritan gurasoen
heziketa ahalegina
gutxietsia edo
baliogabetua geratzen da
kanpoko eraginaren
aurrean"

tik nola babestu jakin ezinik.

Bigarren kasua 14 urteko mutil bati gertatua da. 13-14 urteko lagun taldean Donostiako festetara joan ziren eta tonbola batean txartelak erosi eta ardo botila bat tokatu zitzaion mutil honi. Mutila poz-pozik itzuli omen zen etxera amari ardo botila oparitzera. Amak irakurketak bat baino gehiago egin ditu, ordea. Hasteko, 13 urteko nerabeei ezin zaiela utzi jokatzeko eta txartelak erosten. Bigarrenik, ardo botila bat ezin zaiola oparitu. Hirugarrenik, etxerako

bidean udaltzainek ardo botilarekin harrapatu izan balituzte, amak isuna ordaindu beharko zuen. Laugarrenik, aurtan ez zaie ez mutilari ez bere lagunei ardo botila edatea bururatu, baina datorren urtean auskalo. Bosgarrenik, guraso bezala alkoholaren inguruan egiten dugun prebentzio eta heziketa lana non geratzen da kalean hain erraz baldin badituzte gauzak?

Hortxe bi gurasoen kezka eta inpotentzia. Ikastaroetara eta hitzaldietara joan, adituen artikulak eta aldizkariak irakurri, beste gurasoekin elkartu eta partekatu... hori dena egin eta gero zer?

Orain dela gutxi Berrian bideo-jokoen inguruko erreportaje bat argitaratu da. Txinako gobernuak neurri zorrotzak jarri ditu adingabeen bideo-jokoen erabilera kontrolatzeko: hemen-dik aurrera adingabeak astean

hiru orduz soilik jolastu ahal izango dira, ostiral, larunbat eta igandetan 20:00etatik 21:00etara. Erreportajearen iritzia ematen duten adituek diote neurri honek kontrako efektua ekar dezaketela, eta debekatzeak bideo-jokoetarako grina hauspotu dezakeela.

Haur, nerabe eta gazteek teknologiak eta bideo-jokoak erabiliko dituztela eta erabili behar dituztela argi dute erreportajearen hitz egiten duten lau adituek, baina gakoa noiz eta nola erabili omen da. Eta horretarako, ezinbestekoa omen da gurasoen laguntza, gurasoen eta haurren arteko komunikazioa, bidelagun funtzioa.

Horrekin guztiarekin ados egon gaitezke guraso gehienok, baina lehen aipatutako bi kasuak gogora ekarrita, zerbait gehiago ere behar dela esango nuke: gurasoei eskatzen zaienak inguruan isla izatea, beste batzuek ere norabide berean aritzea. Izan daiteke zenbait bideo-joko desagoki debekatzea; pornografia, jokoak eta apustuak debekatzea; goi mailako arau serio batzuk egotea eta horiek betetzeko bitarteko eraginkorrak jartzea...

Gurasoentzat eta denentzat lagungarri izango litzateke seme-alabak eta herritarrak diren pertsona hauek hezteko.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ARRANDEGIA PELLO
 ASTEARTETIK-LARUNBATERA
 8:30-13:30
 EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
 650 31 31 91 USURBIL

URDAINTZI S.L.
 Eraikuntzak
 urdaintzi@euskalnet.net
 649 43 54 75
 943 36 72 64
 IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA ENEA taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil

Ika-mika

... eta garelako izango dira!

Izan zinetelako gara, horrela zioen, irailaren 18an, Usurbil 1936 Elkarrekin deitu zuen herri omenaldirako hautatutako izenburuak. Eta idatzi honen bidez, Udarregi ikastolako irakasleok horretan berrestera gatoz. Izan ere, nekez ahaztu baitezakegu, duela 85 urte, asteazken hartan eta ondorengo asteetan, Usurbilen gertatua.

Gernika, Elgeta edota Nafarroako Erriberako herritarrek jasandako tropa faxisten erasoaldi basatiez zerbait jakinagatik, ezer gutxi dakigu 1936ko irailaren

18aren ingurumarian usurbildarrek jasandakoez. Ezer gutxi dakigu, Usurbilen gertatutako borrokez, errepresioaz, sufrimenduaz, torturatuez, alde egin behar izan zuten, edota fusilatutako usurbildarrez. Horregatik, gaurkoan, Usurbil 1936 elkarrekin orduko memoria berreskuratzeko egiten ari den ibilbidea babestu eta bultzatzeko eskua luzatu nahiko genuke. Badakigu heziguneez eta bertako irakasleok funtzio garrantzitsua dugula gertatutakoaren transmisioan, herri honen memoria kolektiboa

gure gazteei transmitituz eta horrela, egitarako, justiziarako, erreparazioarako eta gertatua berri ez gertatzeko eskubidea bermatzeko haziak ereinez. Hemen gaudenok, herriko dinamikekin elkarlanean, horretan sakontzeko lekukoa hartzen dugu beraz.

Bukatzeko, ezin omendu gabe utzi, duela 85 urte, balore demokratiko, errepublikazale eta askatzaileen alde jarduteagatik fusilatutako herritarrak: Joxe Mari Furundarena Begiristain, Bautista Aginaga Otegi, Patxi Aizpurua Alkorta, Jose Heredero

Pineda, Romana Zubiria Urruzmendi, Joxe Galarmendi Balerdi eta Kosme Yaguez Beristain.

Bereziki, azken honetan egin nahiko genuke azpimarra, gu bezalaxe, irakaslea baitzen. Iraganean bezala orain, balore berdinak zabaltzeko lanean jarraituko dugu. Hemen gure omenaldia beraientzat eta etorkizuneko belaunaldi berrientzako.

Izan zinetelako gara eta garelako izango dira!

Udarregi Ikastolako irakasleak

Ika-mika

Argindarraren fakturaren prezioa asko igotzen ari da eta argindar enpresen onurak are gehiago

Astez aste argindarra eta tarifa elektrikoak igotzen ari dira, inoiz ezagutu gabeko maila historikoetan kokatuz. Igoera horien ondorioz, gasaren eta erregaien goerarekin batera, inflazioaren eta bizi-kostuaren igoerak %3,30eko urte-arte maila lortu zuen abuztuan. Igoera horiek diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonen eta pentsio miseraleak dituzten pentsiodunen eragiten diete batez ere, pobrezia energetikoan gaizki bizi baitira. Bitartean, enpresa elektriko handien monopolioaren onurak eskandaluz handitzen dira. 2020an hala izan ziren: Iberdrola 3.610,7 milioi euro; Endesa, 1.395 milioi euro; Naturgy, 490 milioi euro; eta EDP, 556. 2021ean irabaziak iazkoak baino handiagoak izan-

go dira.

Argindarraren faktura murritzeko Gobernuak hartutako neurri aringarri bakarra BEZa %21etik %10era jaistea izan da. Baina 8 eta 12 euro arteko aurrezpena baino ez du ekarri, iazko uztailetik gaur egunera arte fakturan izan den batzuek 28 euroko igoeratik. Pedro Sanchezen gobernuak, PSOEren eta PPren aurrekoek bezala, ez du arazoa konpontzeko benetako borondaterik, eta koalizioa bi alderdiak ez dira ados jartzen neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko. Teresa Ribera lehen presidenteordeak duela egun batzuk adierazi zuenez, "ezin dute prezio maximo-rik edo minimorik ezarri ezta bestelako neurririk hartu ere, argindarraren eta energien in-

guru erregulazioak Europar Batasunak ezartzen dituelako, eta, horiek hartuz gero, zigor ekonomiko handiak izango litzuketelako".

Ministra andreak azaldu ez duena da, abuztuko bigarren hamabostaldian, Europako legedi berarekin, Estatuak ohore tamalgaria duela, energiaren prezioa Europako batzuek baino %14 altuagoa delako eta elektrizitatea gastien duen Europako bigarren herrialdea delako. Ezta zergatik maiatza bukatu zenetik elektrizitatearen prezioa %57 igo den, ekoizpen hidroelektrikoa (merkeena) %37 handitu eta gero, urtegiak hustuta. Era berean, ez du esaten zergatik igo dituzten hainbeste etxerako elektrizitate-tarifen prezioa.

Energiaren prezioen arazoak

egiturazko neurriak eskatzen ditu monopolio elektrikoarekin amaitzeko, zerbitzu elektrikoaren publikazioa bultzatzeko, ekoizpena eta merkaturatzea deszentralizatuz, energiaren gehieneko prezioak finkatzeko eta akziodunen mozkinen banaketa eskandalagarria murrizteko, energiaren kostua merkatzeko.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua egoera hori salatzen, mobilizatzen eta alternatibak proposatzen ari gara. Borroka hau irabazi egingo dugu mobilizazioak zabalduz eta horietan beste gizarte-eragile batzuekin bat eginez. Berdin dio nork gobernatu, guk pentsio publikoak defendatu.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182

Ainhoa Azpirotz: “Jendeak produktua izan aurretik, NOAUA!-ko bazkide egin zen”

Ainhoa Azpirotz Eizmendi Hik Hasi-ko editorea, hiru seme alaben ama eta besteak beste NOAUA!ren sorreran ibilitakoa. Aste honetako Kafe Garaian ataleko gonbidatua dugu.

NOAUA! Non zeunden duela 25 urte?

Ainhoa Azpirotz Eizmendi: Duela 25 urte unibertsitateko kaze-taritza eta publizitate ikasketak bukatzen ari nintzen. Hik Hasi-n jada hasia nengoen lanean, Egin irratiari aritzen nintzen asteburuetan eta NoaUA!ren sorrerako taldean nengoen. Gogoan dut nola atera ginen talde horretan genbiltzanak urte hartako Sagardo Egunean NOAUA! jartzen zuen pegatina batekin, bazkidetzak lortzera: aldizkaria eta kultur elkarte sortzera zihoala azaldu genion jendeari eta garrantzitsua zela horri bultzada emateko eta hori sostengatzeko bazkide egitea. Harrera oso ona, bultzada handia izan zuen eta jendeak produktua izan aurretik (San Juanak aldera atera zen lehen zenbakia) bazkide egin zen.

Maila sozialean, urteotan asko aldatu dira gauzak. Ez ote dugu kalea abandonatu eta entzute-gia pantailan murgildu?

Pantailak orain duten presentzia hori ez zeukaten, sare sozialak ez zeuden. Orain solasaldietan mugikorrak edo pantailak sartu dira.

Gizakiak animalia sozialak izanik, nola eraman duzue koronabirusak eragindako pandemiak ekarri duen guztia?

Itxialdiaren hasieran gogoan dut hiru seme-alabei hala esan niela: batzuetan etxean egoteko gogoia izaten duzue, eta orain berdina egingo dugu, baina denbora luzeagoan. Gauzak egiten egunak azkar pasatzen ziren. Gero, pixka bat ateratzen hasi ginenean ziurgabetasun gehiago



“Herri hezitzailea, herri justuagoo, osasuntsuagoo, denontzat bizitzeko gustu gehiago ematen duen herri bat da”, Ainhoa Azpirotz Eizmendik NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan adierazi dionez.

AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

“Aurrez aurrekoa ezin da ordezkatu. Teknologia hauek erabiltzeko irakaskuntzan ere oreka bat aurkitu behar da, neurria hartu behar zaio”

sentitu genuen. Azken momentura arte ez genekien zein ordutan atera behar genuen, zenbat pertsona... Hor zurrumbilo gehiegi izan zen, baina orokorrean ondo.

Hezkuntza arloko aldizkari batean egiten duzu lan. Nola eraman du hezkuntzako sektoreak arrapaladan egokitu behar izatea?

Hezkuntzan estres handiarekin bizi izan zela uste dut. Irakasleen aldetik esfortzu izugarria egin zen. Batez ere, Lehen Hezkuntzan. DBH-n jada ohituta zeuden ordenagailuak erabiltzera, eta errazagoa izan zen egokitzea. Lehen Hezkuntzan paperean ematera ohituta zeuden horiek denak. Presentzialki

eta modu digitalean egitea izugarriko lana izan zen, presio handia izan zelako dena gelditzea. Nekatuta bukatu zuten. Ikasle batzuek bitarteko gehiago zeuzkaten etxean eta gurasoek gainean egoteko aukera. Beste batzuek ez, eta gurasoek ere edo lanera joan behar zuten edo telelana egiten ari ziren. Bestetik, mailaren arabera gauzak egiteko aukera ematen du pantailak eta modu horretan, aurrez aurrekoa ezin bada egin, beste modu horretara egiteko, baina oreka bat mantenduta. Aurrez-aurrekoa ezin da ordezkatu. Teknologia hauek erabiltzeko irakaskuntzan ere oreka bat aurkitu behar da, neurria hartu behar izaten zaio.

“Hik Hasi-k hezkuntza komunitate bat sortzea lortu du eskolatik familiara eta familatik herrira. Horrek komunitatea bera aberastu du” esaldi hori zuk Berrian eskainitako elkarrizketa batetik hartu dugu. Alegia, hezkuntza ez dela soilik eskolara mugatzen den zerbait, baizik eta beste arlo askotara lotuta dagoela.

A.A: Bai, Hik Hasi-ren 25 urteko ibilbide horretan horra iritsi gara.

Hasieran irakasleentzako tresna bat zen aldizkaria. Proiektua bera zabalagoa zen, eta pauso horretan irakasleetatik familietara pasa zen, azken finean umeak ez direlako hezten eskolan bakarrik, etxean ere bai. Eta orduan “Hazi hezi” izeneko aldizkari bat argitaratzen hasi ginen. “Haziera eta Heziketa” aldizkaria familiei begira egindakoa. Hurrengo urratsa “Herrira” salto egitea izan zen eta Usurbil kide duen Oinherri herri hezitzaileen sarearen sorreran egon ginen, eta orain ere partaide gara. Umeak eskolatik kanpo kalean hezten dira ere. Francesco Tonucci, Italiako pedagogoak, ideia hori hartu eta garrantzi handia ematen dio umeek herrian lekua izateari; umeak ere kontutan hartzea herri bat antolatzerakoan eta diseinatzerakoan. Kontua hori da, umei ere erabakiak hartzeko aukera ematea, eta gero, herrian dauden eragile eta elkarte desberdinak lotzea, elkarren berri izatea eta denen artean saretzea. Herri hezitzailea, herri justuagoo, osasuntsuagoo, denontzat bizitzeko gustu gehiago ematen duen herria da.

“Jada hezkuntza komunitatean ere ikusten da ezin dela dagoen egoerarekin jarraitu”

Hik Hasi-ko editorea zara sorreratik. Hedabidea egitasmo potolo batean bilakatu da, edo inpresio hori dugu. Zein izan da garapen horren gako nagusia, zure ustez?

Ainhoa Azpirotz Eizmendi: NOAUA!rekin antzekotasun batzuk baditu. Hasieratik izan da proiektu oso zabala, jende askoren parte-hartzearekin garatutakoa. Lan talde zabal bat zegoen Hik Hasi-ren inguruan ere. Bestetik, jokatzeko modua “sentitu, pentsatu, ekin” izan da, batez ere Joxe Mari Auzmendi Hik Hasi-ren sortzaile eta arima izan zenaren izateko era horrelakoxea zelako. Hezkuntzan, irakaskuntzan eta euskal hezkuntzan zein behar zeuden sentitzen genuen. Behin zein behar zeuden jakinda, zer egin horretan, jende askorekin hitz egin genuen. Eta gero, ekin, eta orduan gauzak egiten hasten da. Formula horregatik lortu dugula uste dut erreferentzialtasun hori. NOAUA!rekin batera daukan beste ezaugarri bat da hedapena. Hasieratik herri osora zabaltzeko asmoa izan zen NOAUA!ren kasuan ere. Nahiz eta bazkide ez egin, herriko etxe guztietara banatzen hasi ziren, helburua euskara zabaltzea ze-



“Hik Hasi-k ikastetxe denekin lan egiten du eta beti errespetutik, bakoitzak bere iritzia eta bere ikuspegia duela jakinda”.

AINHOA AZPIROTZ EIZMENDI

“Orain dagoen hezkuntza legea eskola publikoaren legea da, baina ez ikastetxe mota guztiak barnebiltzen dituen”

lako. Hik Hasi-rentzat ere berdin, helburua irakasleen arteko tresna bat izatea zen elkarren berri izateko, eta nahiz eta harpide ez izan, ikastetxe guztietara banatzen hasi ginen. Nik uste dut horiek izan direla gakoak. Beti errespetutik abiatuta. Usurbilen ikastola bakarra daukagu kaxkoan eta eskola txiki bana

Aginagan eta Zubietan, baina herri batzuetan ikastetxe gehiago daude. Hik Hasi-k ikastetxe denekin lan egiten du eta beti errespetutik, bakoitzak bere iritzia eta ikuspegia duela jakinda. Helburua euskal hezkuntza sistema propioa sortzea da.

Hik Hasi-ren helburua euskal hezkuntza sistema propio bat hedatzea da. Duela 25 urte baino baldintza hobeagoak daude horretarako edo antzeko jarraitzen dugu?

Administratiboki berdin jarraitzen du, banatuta gaude. Halere aurrerapauso batzuk eman dira 25 urte hauetan. Adibidez, lehen irakasle guztiak ez ziren

euskaldunak. Gaur egun, hori ulertezina da. Lehen formazioa gaztelaniaz ematen zen irakasleentzat, gaur egun euskaraz. Euskal Curriculum beste urrats bat izan zen euskararen eta hemengo kulturaren oinarritutako curriculum lantzea, ikastoletan egin dutena. Udarregi kontutuan hartzen badugu, konfiantzaren pedagogia edo eleaniztasuna, KIVA edo horrelako proiektuekin aldaketak gertatu dira. Aginagako eta Zubietako eskola txikietan oso hezkuntza proiektu interesgarriak eta eredugarriak dituzte. Halere oraindik baditugu beste erronka batzuk. Sistema propio hori oraindik lortzeke daukagu, baina badirudi hemen Eusko Jaurlaritzak hezkuntza lege bat egin nahi duela. Orain dagoen hezkuntza legea eskola publikoaren legea da, baina ez ikastetxe mota guztiak barnebiltzen dituen. Orduan badirudi lege bat egin nahi dutela legegintzaldi honetan, eta horrek seguraski aldaketak ekarriko ditu. Jada hezkuntza komunitatean ere ikusten da dagoen egoerarekin ezin dela jarraitu, korapilo asko lotu gabe daudela eta aldaketa beharra nabari da.

“Digitalizazioarekin paperekoak indar pixka bat galdu egin duela aipatuko nuke”

Besteak beste, NOAUA! euskararen normalizazioan eragiteko ere jaio zen, eta zu ere hastapen haietan izan zinen. Eta gaur egun hedabide gisa paperean eta sarean ari gara, baita elkarte bezala, kultur arloan edo aisialdian ere. Zure ustez NOAUA!k zer du faltan, eta zer du soberan?

Ainhoa Azpirotz Eizmendi: Digitalizazioarekin paperekoak indar pixka bat galdu egin duela aipatuko nuke.

Papereko aldizkaria eskuetara iristerako, guztia jada aurretik badaukagu digitalean. Orduan, hori pixka bat zaindu edo orekatu egin behar dela iruditzen zait. Batzuetan inpresioa dut agenda kutsua hartzen duela aldizkariak: ekitaldi batzuk iragartzen dira eta horien jarraipena egiten da ondoren. Nik ez nuke den-dena grabatuko, adibidez. Aldizkarian edo webgunean, agenda kutsu hori kentzeko erreportaiak eta

beste lan batzuk tartekatuko nituzke, artisau lan gehiago: herriko pertsonak elkarriketatu, auzoetako gauzak atera... Bestalde, herri hezitzailearen proiektu horretan NOAUA!k ere parte hartzen du eta nik ikusten dut NOAUA! garrantzitsua dela. NOAUA!k herriko talde eta eragile askorekin du harremana. Orduan, esango nuke gakoa dela herri hezitzailearen taldean, eta paper garrantzitsua joka de-

zakeela eremu horretan kultur elkarte gisa. Erronka edo amu bat botatzekotan, gazteen eta nerabeen esparrua lantzea ikusten dut kultur elkarte modura aisialdian edo kultur eskaintzetan hasita. Asmatu egin beharko litzateke, eta gainera, beraiekin beste modu batean landu behar da. Agian, beraiek antolatu behar dute edo hori aztertzeke esparru bat sortu beharko litzateke.

Errebotea kinka larrian zen duela 25 urte

Irailaren amaiera iritsi zen duela 25 urteko NOAUA!, hilaren 27an, hain zuzen. Titular nagusia: “Zubietan ez da giro errebotearekin”. Garai hartan, errebote taldean arazoak izan zituzten zuzendaritza eta kirolarien artean, batzarkide berriak aukeratzekoan kirolariak espero ez zituzten hautagaiak aurkeztu, eta irabazi egin baitzuten.

NOAUA! ireki eta jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak pasatuta, iritziaren atala. **Manu Aranburu** herritarra autobus zerbitzuan izandako murrizketek xexu zen, eta manifestazioak egiten ari zirela iragarri zuen. “Herritarrek behartu egiten gaituzue auto partikularrak erabiltzera”, esan zuen zutabegileak.

Jakoba Errekondo ere xexu

zen frontoian egiten ari ziren estalkiatik, “astakeria izugarria” iruditzen zitzaion beirazko estalkia, errebote plazaren xarma eta erabilera oztopatuko zituelakoan.

Berriketan atalean, **Andoni Andonegi Usurbilgo apaiz ohia** izan zen protagonista. Kalejiran, berriz, herritarrek zenbait konturi buruz idatzi zuten: autobus zerbitzuen murrizketak, DBH berria, istripua eta lapurretak.

Ondoren, **San Praxkuetako** egitarau oparoa eta **Albaro Bruñori**, jai batzordeko kideari, eginiko elkarrizketa.


Hurrengo bi orrietan erreboteari lotutako afera, **Yoko Garbi** elkarteko zuzendariaren hitzak eta pilotariarenak tarteko. Etorkizun iluna ikusten zioten elkarteari.

Porrusalda atalean hileko

gertaera nagusiak: **Kerman Errekondo eskubalo** jokalaritari omenaldia, kutxako kutxazaina kiskalita koktel molotofen eraginez, hiru usurbildar gose greban Berlinen eta akanpada presoan eskubideak betetzeko eskatuz, akordeoi lehiaketa, **Michelin** lantegiko plan sozial berria, apaiz aldaketa, sagardo lehiaketa, **Galtzaragainako etxebizitz**en bigarren fasea, **Atalluko lurren espropiazioa**, alkatearen epaiketa eta autobus zerbitzuen murrizketak.

Izerdi patsetan atalean, berriz, **herriko saskibalo** taldea izan zuten mintzagai, lehen aldiz, saskibalo taldea sortu baitzen herrian. Senior mailako taldea denboraldia hastera zihoan.

Herriko taldeei dagokienez, **Kirikoketa** txalaparta talde sortu berria izan zuten hizpide.



1996ko irailaren 27an plazaratu zen NOAUA!ren laugarren zenbakia.

Jexux Artze, Pello de la Cruz, Mikel Artola eta Iker Muguruza laukoteak osatutako taldea.

Amaitzeko agenda kontuak eta lehiaketa. Horra ale hartako galdera: **zenbat maila ditu Kalezarko eskailerak?**

Duela 25 urte

NOAUA! 4. zenbakia 1996ko irailaren 27an

“Andregaiak berandu etortzen direnez, batez ere, senargaiekin arnas-ariketak egiten aritzen naiz”

1996an kaleratutako laugarren NOAUA!n, Xabier Andonegi garaiko Usurbilgo apaizari luzatu zioten elkarrizketa proposamena.

NOAUA! Noiz eta non apaiztu zinen?

Xabier Andonegi: 1977ko irailaren 18an apaiztu nintzen Mutrikun, nire herrian, 23 urte nituela. Hain gazte izanda ezin da apaiztu, Aita Santuaren baimen berezi bat behar da, baina nirekin salbuespen bat egin zuten. Hala ere, ez nengoen urduri eman nuen lehenengo mezan.

Gazte gehienek zuk ezkontzea nahi dute, zergatik?

Ez dakit, bada. Seguruenik nik lasaitu egiten ditudalako, eta beraiekin brometan ari-

tzen naizelako izango da. Andregaiak berandu etortzen direnez, batez ere, senargaiekin arnas-ariketak egiten aritzen naiz.

Zerbait barregarria gertatu al zaizu ezkontzaren batean?

Bat-batean etortzen zaidan gauza bakarra elizara sartu behar genuenean, senargaia zuri-zuri jarri eta lurrera ziplo erori zen hartakoa da.

Zer aurkitu duzu Usurbilen?

Giroa azpimarratuko nuke behin eta berriz. Onartua sentitu naiz, eta harremanak erraz egin ditudala ikusi dut.

Inoiz damutu al zara apaiz egin izanaz?

Momentu gogorak edo “krisiak” izan ditut, mundu guz-


tiak bezala, baina inoiz ez naiz damutu. Gainera, urteak pasa ahala, bokazioa indartu egin zait.

Urrian utzi egingo gaituzula entzun dugu. Nora zoaz?

Madrilera noa Master bat egingo, “Teologia eta erlijio filosofia” ikastera, hain zuzen ere. Jesuitek daramaten Comillas unibertsitatara noa bi kurtsotarako.

Zer dela eta aldaketa hau?

Aldaketa bat behar nuelako. Jadanik urte asko daramatzat Gazte Pastoralta zuzentzen, eta ezin dut esan gaztetxoa naizenik, berrogeitabi urterekin. “Año sabático” bat hartzeko aukera eman didate, eta hartu egin dut, horrela gainera, Euskal Herrian erlijioa eta kulturak




Xabier Andonegi, garaiko apaiza elkarrizketatu zuten 4. zenbakian.

izan duten erlazioa aztertzeko beta ere izango dut.

Eta itzultzeko asmorik bai?

Noski. Parrokiak duen pisua gordeko didatela esan didate, eta hori niretzat mauka bat da. Lotura bat suposatzen du herriarekin. Hurrengo zubia noiz izango den jadanik pentsatzen ari naiz segituan bueltatzeko.



“Ze ona!”

Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakinmina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.

berria

zuk badakizulako

Buztinzulo biziberritzeko ahaleaginean

Askok ondo gogoan izango dituzte Buztinzuloren urte loriatsuak. Azken urteetan, partehartzeak eta funtzionamendu orokorrak beherakada handia nabaritu badute ere, proiektua biziberritze asmotan dabilta Tximi, Saioa Vallejo, Irene Alvarez eta Melodie. Lehen hirurekin bildu da hedabide hau proiektu berriaren nondik norakoak ezagutu asmoz.

NOAUA! Aspaldi ezagutu genuen Buztinzulo, Zumarte azpiko txokoan. Orain proposatzera zatoztena egitasmoaren jarraipen bat litzateke?

Irene Alvarez: Buztinzulok jende asko ikusi du joaten eta etortzen, baina Tximi beti mantendu egin da, eta urte hauetan guztietan Buztinzuloren arima izan da. Duela urte pare bat iritsi nintzen ni. Gure ideia da bakoitzak bere proiektua aurrera eraman ahal izateko txoko bat izatea, eta horretarako leku hau berri eta egokitu beharra dago.

Tximi: Buztina landu ahal izateko leku eroso baten beharra daukagu, eta jende gehiago hurbiltzea da gure helburua. Bakoitzak bere proiektuak aurrera eraman eta elkar



Atxegalden du egungo egoitza, Buztinzulo egitasmoak.

BUZTINZULO

“Buztina landu ahal izateko leku eroso baten beharra daukagu, jende gehiago hurbiltzea da gure helburua”

guntzeko espazio bat da sortu nahi duguna.

Nori zuzendutako proiektua da?

IA: Guztiei zuzendutako proiektua da, edonor dago gonbidatuta parte hartzera. Ez ditugu ikastaroak eskainiko printzipioz, hau da, ez da umeentzat eskolaz kanpoko jardura bat izango. Gurasoak hurrekin eto-

rriko balira, ez guke inolako arazorik izango denak hartzeko. Gainera, gustatuko litzaiguke belaunaldien arteko topagune izatea ere.

Saioa Vallejo: Nik uste dut funtsa hori izan dela sortu zenetik, zeramika talde bat izan da eta eta jendea gerturatu ahala ikusi dugu espazio bat hor zegoela lan egiteko. Tarteka eskaini izan dira ikastaroak, ez guk emanda, baina interes berezia zutenentzat. Beraz, espazio fisiko bat egokitu nahi dugu jende gehiago erakartzeko, eta partekatze guk egiten duguna. Modu horretan, zeramika taldea berpiztea da helburua. 1987an sortu zen, eta ordutik bizirik mantendu da, baina gero eta jende gutxiago

gabiltza. Ea bultzada ematen diogun berriz ere.

Tximi: 35 urte daramatzat nik taldean, sortu zenetik jarraitzen dut, eta proiektuaren biziberritzearen beharra ezinbestekoa da.

Taldean egun lau zarete?

IA: Ez, jende gehiago ere ibiltzen da. Buztin banatzailea, eta noizbehinka lantxoren bat edo beste egiten dutenak ere badaude.

Lekua egokitzeaz ari zaretenean, leku hau berrantolatzea da ideia edo beste txoko bat bilatzea?

Tximi: Hau da daukaguna momentuz. Taldea sortu zenetik hirugarrena da. Zumarteko so-toan hasi ginen, gero Udarregi Ikastolako tailerrean, eta azkenik Atxegaldeko lokal honetan gabiltza.

IA: Printzipioz gure proiektua hemen abiatuko dugu. Udarekin harremanetan gaude proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izateko, eta oraindik gauza asko zehazteke daude.

S.V: Gela txiki bat daukagu guretzat, eta beste bat partekatu egiten dugu beste talde batzuekin, baina egokitzapen behar handia du.

Saioa Vallejo: “Norberaren interesetatik abiatuta bere lekua topatzea da arte plastiko guztien giltza”

Zer du erakargarri buztin-gintzak?

Irene Alvarez: Konturatu gara pixka bat gure proiektua azaltzen hasi garenean batzuek interesa erakutsi dutela. Ezjakintasunak ere eragin handia du, baina inoiz buztina landu ez duen jende dezente elkartuz gero, ekarriko guke norbait ikastaroren bat ematera formakuntza

txiki bat egiteko edo guk geuk ere dakiguna erakutsi dezakegu. Ikastolarekin edo elkarte ezberdinekin ere gauzak egiteko prest gaude. Elkarlanaren bidez, jakintza partekatu nahi dugu.

Buztingintza zabala da, baina zer barnebiltzen du?

Tximi: Arlo asko ditu berez, bakoitzak gustokoen duena

aukeratu eta lantzea da kontua. Grabatuekin lan egin daiteke, eskulturak ere egin daitezke, etxean erabiltzeko tresnak... denetik egin daiteke.

Saioa Vallejo: Teknika asko daude lantzeko, ez da beti zertan metodologia bera erabili. Eskuz lan egin daiteke edota tornuarekin. Norberaren interesetatik abiatuta bere lekua topatzea da arte plastiko

guztien giltza. Buztinarekin harremanetan hasiz gero, harrapatu egiten gaituen mundu bat da.

IA: Herrian bertan ere badaude Buztinzulon landutako hainbat pieza: Arruti harategiko murala, Zumetaren muralak, etxe zein kaleen izenak... Usurbilek badu harreman historiko bat buztinarekin.

“Udarregi Ikastolarekin harremanetan gaude buztinarekin zerbait egiteko”

Nondik datorkizue buztin-gintzarekiko harremana?

Tximi: Ni 18 urterekin hasi nintzen. Andatza Mendi Elkar-teak Zumarte azpiko lokalean buztina lantzeko tailerra ireki zuen, Buztinzulo, eta bertan sartu nintzen. Garai hartan gazteontzat ez zegoen aukera gehiegirik bertan, dantza, txistulari banda eta ezer gutxi. Futbola eta eskubaloia ere aukeran izaten ziren, baina nik aukera horiek ez nituen gustoko. Buztingintzan hastea erabaki nuen.

Saioa Vallejo: Arte Ederrak ikasi nituen eta irakaslea naiz. Garai haietan pare bat urtez zeramika zerbait egin nuen, baina duela hiruzpalau urte Igeldoko bibe-ro kulturean tornua ikasten hasi nintzen. Han antolatuta zeukaten ikastaro bat, eta nik behar nuen gida bat edo zerbait nonbaitetik lanean hasi ahal izateko, eta horretan jarraitze-ra “behartuko” nauen zerbait. Oraindik ere ikasketa prozesuan murgilduta nago, asko daukat ikasteko. Duela 15 urte hona bizitzera etortzean zerbait egin nuen, baina haur txikiekin eta utzi egin behar izan nuen. Igeldoko esperientzia oso ona izan zen, eta Irenearekin hitz egin nuen arte hori Usurbila ekartzeko.



Ezkerretik eskuinera, Irene Alvarez, Saioa Vallejo eta Tximi, Buztinzulo egitasmoaren sustatzaileak.

IRENE ALVAREZ

“Usurbilgo buztina landu nahi dut. Erabiltzen dugun buztina, normalean, Zaragoza edo Valentziatik etortzen da”

Irene Alvarez: Ni autodidakta naiz, artisautza da nire esparrua. Herriko kultura hori dut barnean, ez artistikoa. Niretzat buztina eta egurra, esaterako, artisautzari lotuta dauden material nobleak dira, naturalak. Egunerokotasunean erabili ahal

izateko gauzak egiten ditut, batez ere: platerak, teontziak...

Zein proiektu dituzue eskuartean?

IA: Usurbilgo buztina landu nahi dut. Erabiltzen dugun buztina, normalean, Zaragoza edota Valentziatik etortzen da, eta oso uniformeak dira eta industrialak. Bertako buztina eza-gutu nahi dut, eta non dagoen jakinda berarekin lan egin. Prozesu osoa ikusi eta irakatsi. Gauza berezi batzuk egin nahiko nituzke. Andatza inguruan badago zerbait eta Aginagan

ere bai. Nondik hartzen zuten garai batean, nola lantzen zuten eta zertarako erabiltzen zuten aztertu nahi dut nik.

S.V: Ikastolarekin harremanetan gaude buztinarekin zerbait egiteko. Ez ikuspuntu akademiko batetik, baina bai buztinaren-gana hurbiltzeko eta jolasteko. Umeentzako leku egoki bat izan behar du, baina oso erakargarria den materiala da, eta oso askea: zikindu, ukitu... Niri tornuarekin jarraitzea ere interesatzen zait, gehiago ikasteko. Eskultura ere landu nahiko nuke.

Erraustegia geratzeko giza katea Kontxan

Kontxako estropaden bigarren jardunaldi eguna, urte luzez egin izan duten moduan, erraustegia geratzeko mobilizatzeko unea ere izan zen. Zubietako plantak erretako “zabor kilo bakoitzeko CO2 kilo bat sortzen du”, salatu zuten deitzaileek, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, eragile sindikal, politiko eta ekologista hainbaten babesarekin

irailaren 12an Donostian egin zuten giza katean. Hondakinen errausketak klima aldaketan sakontzen laguntzen duela ohartarazi zuten. “Hondakinei irtenbide jasangarriagoa” ematea eskatu zuten, Alderdi Eder eta Kontxa inguratu zituen mobilizazioan. Segurtasun indarrek badian zintzilikatu zuten pankarta bat kendu zietela salatu zuten giza kateko antolatzaileek.



Errausketaren aurkako aldarriak Kontxako badia inguratu zuen, estropaden azken jardunaldi egunean.

“Oilasko biltzaileen bazkarietan emakumeok ez genuen parte hartzen. Bekatua zen”

Aurten Oilasko Biltzaileen egunik ez da izan auzoetako festetan, ez eta Usurbilen bertan ere. Edo ez behintzat tradizioak dioen bezala eskea eta bazkariaren urteroko ohitura. Antzinako tradizioak aldaketak jasan ditu azken urteetan, eta hori ondo baino hobeto daki Juana Ictak, 93 urte dituen herritarra. Duela 75 bat urte ezagutu zuen bere senarra izango zena, garai hartan trikitilari moduan ibiltzen zen mutilarekin ezkondu baitzen. Badira 35 urte senarra hil zela, eta oraindik ere haren trikitixa zaharra etxean dauka oroigarri.



“Begiak estaltzen zizkieten oilaskoari eta lepoa mozten zioten. Urte batzuetan ohitura horrek bizirik iraun zuen, baina herritarrek kexu ziren animalariari tratu txarrak ematen zitzaizkiolako, eta debekatu egin zuten”.

NOAUA! Duela 75 bat urte, nolakoak izaten ziren oilasko biltzaileak?

Juana Ictak: Goizeko 6:00etan ateratzen ziren, eta bi taldetan banatzen ziren. Urdaigako festetan izaten zen hori. Urdaigatik abiatu eta Aginaga aldera joaten ziren batzuk, eta besteak, berriz, Usurbil aldera. Hori guztia Urdaigako festetan. Garai hartan, nire senarra eta koadrila Aginaga aldera joaten ziren, eta beste bi Usurbil aldera. Ni Txokoalden bizi nintzen, eta beraz, Aginagako taldekoekin egiten nuen topo. Ez pen-tsa egun ikusten diren bezala, taldeak oso handiak ziren, zortzi bat gizonez osatutako taldeak izaten ziren.

JUANA ICTAK

Oilasko biltzaileak gutxi izan ohi ziren. “Ez pentsa egun ikusten diren bezala, taldeak oso handiak ziren. Zortzi bat gizonez osatutako taldeak ziren”

Denak gizonak?

Duela 75 edo 80 urte bai. Hori ez zen berezitasun bakarra, ordea. Eskean joaten zirenean, etxe hartako norbait urte hartan edo berriki hila bazen, belauniko jarri eta errezzatu egiten zuten. Egun ez da halakorik

egiten, baina garai hartan beti. Baserritarrek oilaskoak ematen zizkieten trukean, eta etxeetan dirua.

Behin eskea amaituta bazkaria egiten zen orduan ere?

San Esteban hirugarrenean bazkaria izaten zen bildutako oilaskoekin, eta gero plazan oilasko jokoak egiten ziren. Ez nago ziur zein urtetan izan zen, baina urte batean haizeak Urdaigako kanpandorrea bota zuen, eta konponketak egiten aritu ziren. Horrekin batera plaza ere berritu zuten, egun ezagutzen dugun modura. Be-

raz, plaza berria aprobetxatuta, zulo bat egiten zuten plazan eta oilaskoa bizirik sartzen zuten bertan. Begiak estaltzen zizkieten oilaskoari eta lepoa mozten zioten. Urte batzuetan ohitura horrek bizirik iraun zuen, baina herritarrek kexu ziren animalariari tratu txarrak ematen zitzaizkiolako, eta debekatu egin zuten.

Jendetsuak izaten ziren bazkari haiek?

Ez dakit ziur esaten. Gizonen bazkaria izaten zen, emakumeok ez genuen parte hartzen. Bekatua zen.

“Garai hartan horrela izaten ziren kontuak. Dantzara ateratzen gintuzten, eta horrela ezagutzen genuen elkar”

NOAUA! Nola ezagutu zenuen zure senarra?

Juana Ictak: Gero festara joaten ginela. Arratsaldean dantza egitera joaten ginen, eta Jose Ramonek trikitixa

jotzen zuen. Ttunttuna jotzen zuen haren lagunak eta biek dantzaldia egiten zuten. Koadrilan egoten ginen dantzara ateratzeko zain, eta jakina, guk Urdaigakoak eta Txokoal-

dekoak ezagutzen genituen, eskolako lagunak. Horrez gain gure adineko inor gutxi ezagutzen genuen. Jose Ramon Txikierdikoa zen, eta ez genuen elkar ezagutzen. Nitaz galdetu

zuen hark, eta hala ezagutu genuen elkar. Garai hartan horrela izaten ziren kontuak, dantzara ateratzen gintuzten, eta horrela ezagutzen genuen elkar.

“Trikitixa oso ondo daukagu zainduta, baina urte asko dira inork jo ez duela”

NOAUA! Oilasko biltzaileekin jotzeaz gain, zure senarrak beste nonbait jotzen zuen trikitixa?

Juana Iceta: Irubiden egiten zen dantzaldian jotzen zuen, eta bestelako plazetan ere bai. Diskoteka estilokoa zen Irubide, pinudi artean egiten zen dantzaldia izaten zen. Bekatua zen hara joatea, baina modu ezkutuan asko joaten ziren dantza egitera, eta Jose Ramonek han jotzen zuen trikitixa. Abesti gutxi batzuk zekizkien, eta horiek jotzen zituen beti. Ez zekien musika, eta hori muga galanta zen abesti gehiago jotzen ikasteko. Hala ere, garai hartan solfeoa eta musika zekien inor gutxi egoten zen.

Etxean ere jotzen zuen?

Bai, baina ez zitzaidan gustatzen etxean jotzen aritzea. Trikitixaren doinuek negargura sortzen zidaten, ez dakit oso ondo zergatik, baina tristura sortzen zidan. Plazetan jotzen zuenean berarekin joan izan nintzen, baina negarrez egoten nintzen bazter batean. Ez nuen nire aurrean jotzerik nahi izaten, ez dakit oso ondo zergatik, baina horrela zen.

Beraz, trikitixa asko erabilitakoa da.

Bigarren eskukoa izanik, lehen jabeak joko zuen eta nire sena-



Senarraren trikitixa ondo jaso du etxean. “Tapi trikitilariak askotan eramaten zuen jotzeko, eta Laja eta beste hainbatek ere bai. Erabaki genuen ez saltzea, eta ordutik etxean daukagu hautsa hartzen”.

JUANA ICETA

“Senarrak Irubiden jotzen zuen, pinudi artean egiten zen dantzaldian. Bekatua zen hara joatea, baina modu ezkutuan asko joaten ziren dantza egitera”

rrak ere erabilera handia ematen zion. Tapi trikitilariak ere asko-

tan eramaten zuen jotzeko, eta Laja eta beste hainbatek ere bai. Erabaki genuen ez saltzea, eta ordutik etxean daukagu hautsa hartzen. Oso ondo daukagu zainduta, baina urte asko dira inork jo ez duela.

Oraindik ere etxean daukazu trikitixa.

Trikitixa gaztetan erosi zuen senarrak, eta bigarren eskukoa zuen. Beraz, ehun urte baino

gehiago ditu trikitixak. Ez dakit non ikasi zuen jotzen, bere kasa ikasia izango zuela pentsatzen dut. Gordeta daukagu oraindik ere, oroigarritzat. Oso soinu berezia zuela zioten trikitilari ezagunek Tapiak eta Lajak esaterako, eta erosteko asmoa ere erakutsi zuten. Guk ez dugu inoiz saldu nahi izan, etxean inork jotzen ez badaki ere guretzat balio sentimental handia du eta.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Herriaren berotasuna eta aitortza jaso zuten, “Izan zinetelako gara” ekitaldiko omenduek

Kosme Yaguez, Joxe Galar-mendi, Romana Zubiria, Joxe Mari Furundarena, Bautista Aginaga, Jose Heredero eta Patxi Aizpurua. 1936ko gerran fusilaturiko zazpi usurbildarrok omenaldi hunkigarria jaso zuten irailaren 18an frontoian, Usurbil 1936 elkarteak eta Udalak antolaturiko “Izan zinetelako gara” ekitaldiaren baitan. Txalo zaparradarekin batera, haien izenean lore sorta eta oroigarri bana jaso zuten ondoko argazkiko senideek. Lore eskaintza egin zitzaientzen, Orbeldik aurrekua dantzatu zien herriko txistularien laguntzaz... Hamarkada luzeetako isiltasuna hautsi zuen herriaren aitortza eta berotasuna jaso zuten. Ugaitz Agirrek espresuki ekitaldirako sortutako errezitaldiak borobildu zuen ekitaldia. Hasi aldiz, Irastorza aita seme txalapartarietara eta herriko adar jotzaile taldeak. Eta lehenago plazatik, antolakuntzak zazpi suziri jaurti zituen; 1936ko gerran fusilatu zituzten usurbildar bakoitzeko bana.

Bertsoen eta ikus-entzunezkoen laguntzaz, orduko tesuingurua aurkeztu zituzten.

Memoria, aitortza, erreparazioa

Eskerrak helarazi nahi izan zizkieten Usurbil 1936 elkartetik, “proiektu honen alde zuen altxoa jarri duzuen herritar orori, zuek gabe hau guztia ezinezkoa



Hunkituak ziren senideen bidez omendu zituzten 1936ko gerrako fusilatu usurbildarrak.

USURBIL 1936

“Hurrengo hilabeteetan hainbat ekimen garrantzitsu jarriko ditugu martxan, izango da non parte hartua”

litzateke eta”.

Orain artekoaren balantzea egiteko baliatu zuten iragan larunbateko herri omenaldia. “1936ko gerrak utzitako oinazeari” buruz falta zen “errelatoa eraikitzeko” ekin zioten lanari, aurretik arlo honetan egin zegoen “lanketaren hariari tiraka”. Orain arte jorraturiko

bidea “erronka bezain handia” izaten ari da, “izugarria, sakona”. Helburu bikoitzaren bueltan dihardute. “Lehenik, memoria horren lanketatik Usurbilen zer gertatu zen jakin, bigarrenik memoriaren aitortza eta erreparazioan pausoak ematen jarraitu”.

Parte hartzeko deia

“Umiltasunetik baina ikusmira urruti jarrita” irailaren 18ko herri omenaldiaren ondotik, datozen ekimenetan parte hartzeko gonbita luzatu du Usurbil 1936 oroimen historikoaren aldeko elkarteak. Gudalekuen berreskuratzea,

erakusketak, omenaldiak, 36ko gerrak Usurbilen utzitako aztarnari buruzko argitalpen bat... Aurrera begira, egitasmo gehiago ditu Usurbil 1936 elkarteak eskuartean.

Ekimen guztietan esku hartzeko gonbita luzatu zuten aipatu herri bilgunetik, frontoiko herri omenaldian. “Hurrengo hilabeteetan hainbat ekimen garrantzitsu jarriko ditugu martxan, izango da non parte hartu eta zer antolatu. Beraz anima zaitetzte, eta egin dezagun bidea elkarrekin, zor zaielako iraganeko, oraingo eta etorkizuneko usurbildarrei”.

Herriaren berotasuna jaso zuten omenduek



Udarregi Ikastolako irakasleen atxikimendua jaso zuen herri omenaldiak.



Lore eskaintzarekin oroitu zituzten omenduak.

“Demokrazia eraikitzen du memoriak. Memoria ez da bakearen etsaia, aliatua baizik”

Esker hitzak helarazi zizkien Agurtzane Solaberrieta alkateak “proiektu hau posible egin duzuen herri-tarrei, eta nola ez, nire ohore eta eskertza gaur bertaratu za-
reten senide eta lagunei”.

“Gerrak sortutako isiltasuna, ezin du ahanztura izan, lur-
pean utzi dutenen egia aza-
leraztea dagokigu, haiei zor
diegu”. Ildo horretan, gogora
ekarri nahi izan zuen larunba-
teko herri omenaldian, hamar-
kada luzeetan “inposatutako
isiltasuna eta gezurra, etenga-
beko gezurrak”. Horrek guz-
tiak, “iraunkorki markatu zuen
bai zuzeneko edo zeharkako
protagonisten memoria, bai eta
beraien ondorengoena eta etor-
kizuneko belaunaldiena ere,
isiltasunaren memoria sortze-
raino, inongo aitorpen, errepa-
razio eta justiziarik gabekoa”.

Ezagutzarako

Horren aurrean, oroimenetik
haratago doan memoria alda-
rrikatzen du Usurbilgo alka-
teak, “herritarrok badugulako
egia jakiteko eskubidea”. Au-
rretik arlo honetan egindako
lanketan sakontzearekin, Usur-
bil 1936 elkartearen jarduna-
rekin bat egin eta sustatzeko
asmoa adierazi zuen Solabe-
rrietak, irailaren 18ko oroimen
ekitaldian. “Belaunaldi berriek
gure aiton amonek bizitakoa



Memoria historikoaren alde herrian lanean diharduen herritar taldea.

USURBILGO UDALA

**“Une zailenetan gure
herriaren alde
hartutako konpromisoa
aitortu nahi diegu”**

ezagutzea, historiari eta usur-
bildarrek pairatutako indarke-
ria eta giza-eskubideen urrake-
tei izen abizenak jarri nahi
dizkiegu”.

Haiei guztiei, “une zailene-
tan gure herriaren alde har-
tutako konpromisoa aitortu
nahi diegu. Konpromiso horiek
hartzeagatik, gerora, orain eta
etorkizunean ere gure herria-
ren alde lan egiteko eta herria-
rekin konpromisoak hartzen
dituen herritarrek ditugulako.
Izan zirelako gara eta garelako
izango dira”.

Emakumeak gogoan

1936ko gerran fusilatu zituzten
zazpi usurbildarren izen abi-
zenak adieraztearekin batera,
“herritik ihesi joan behar izan
zuten hamarnaka usurbilda-
rrak, gerra frontean hildakoak,
atxilotuak, zigortuak, tortura-
tuak, erbesteratuak, zaurituak,
konfiskatuak edo mobilizatuak
izan ziren hamarnaka eta ha-
marnaka herritar” gogoan har-
tu zituen Solaberrietak.

Bai gizonezko baita emaku-
mezkoak ere. “Gerra ez baitzen
gizonen kontua izan bakarrik,
emakumeek ere modu ezberdi-
netan pairatu baitzuten gerra-
ren eragina eta gerrak ekarri-
tako izua eta sufrimendua,
gehienetan isilik, bakarrik eta
ama, emazte edo alaba gisa
frankistek estigmatizatuta,
lotsaraziak edota baztertuak”.

Azterlana

Ildo horretatik, azterlan bat
egin asmo dute, “hamarkada
luze hauetan gure herrian izan
diren giza eskubideen urraketa
guztiena”, alkatearen esane-
tan, “izan ere etorkizuna oina-
rri sendoeekin eraikitzeko gure
aiton-amonen memoria histori-
koa zein gertuagoko memoria
berreskuratea eta ezagutaraz-
tea dagokigu, sufritu dutenen
mina aitortu” eta erreparatze-
ko. Etorkizunera begira, “ger-
tatukoa ezagutzeak eta bestea-
ren memoria onartu, ulertu eta
sentitzeak pisu garrantzitsua
izan beharko du belaunaldi
berrientzat, nagusiki berriz ez
gertatzea bermatzeko. Ez dut
dudarik, demokrazia erai-
kitzen duela memoriak eta me-
moria ez dela bakearen etsaia,
aliatua baizik”.

Une hunkigarri bat baino gehiago



Senideak eta herritarrek batu zituen herri omenaldiak.



Orbeldik dantzan omendu zituen ekitaldiko protagonistak.



Santueneko Kultur Birako Mus txapelketako irabazleak.



Pala txapelketan, Onintza Gartzia eta Jon Larrañaga nagusitu ziren.



Punteria fin askoa erakutsi zuten gaztetxoek arku jaurtiketan.



Viafara eta Neona herriko taldeek girotu zuten Santueneko kontzertu gaua.



Bizikleta slalomaren eskenatokia bilatu zuten eskubaloizelaia.



Lehia bizia, igel eta toka txapelketetan.

Aginaga, Kultur Biraren hurrengo geltokia

Urriak 1, ostirala

18:30 Eliza Zaharraren irekiera erakusketa.

22:00 Kontzertu gaua Aginagako Ariztitxo frontoian: Lukiek eta Ibil Bedi taldeak. Zehaztasunak: "Lukiek Mungian sortutako talde bizkaitarra da eta Belako taldeko kitarrajole eta kantaria den Josu Ximunek, Antton Goikoetxeak eta Christian Rodriguezek osatzen dute. Rock doinu indartsuak jotzen dituzte! Ibil Bedi 2018an sortutako musika talde nafarra dugu, Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeako bost gaztez osatua. Maitasunaz, zalantzez, ezustekoez, galeraz eta bizipenen inguruan abesten dute".

Urriak 2, larunbata

06:30 Oilasko biltzaileen irteera trikitilariarekin Atarialde elkartetik. Izen ematea: aginagaherria@gmail.com

16:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Sekañan. Izen ematea: aginagaherria@gmail.com

19:00 Jon Ostolaza, Eliza Zaharraren atarian. Zehaztasunak: "Albertok ez du aurkezpenik behar. Ezaguna dugu aginagarra. Bere umoreagatik eta antzerkigintzagatik ezaguna da eta makina bat bakarriketa egin dituen arren, lagun artean lehen aldia izango

21:00 "Albertoren bakarriketa" Eliza Zaharraren atarian.

Zehaztasunak: "Albertok ez du aurkezpenik behar. Ezaguna dugu aginagarra. Bere umoreagatik eta antzerkigintzagatik ezaguna da eta makina bat bakarriketa egin dituen arren, lagun artean lehen aldia izango

du publikoarekin. Estreinakoz aritzeko San Praixkuetako plazan izan behar zuen bai ala bai".

Urriak 3, igandea

17:00 Potxin eta Patxin pailazoen saioa Ariztitxo frontoian. "Mala-bareak, zirkua eta musika! Ordu-bete inguruz gozatzeko aukera edukiko dute etxeko txikiak!".
19:00 Film proiektzioa Eliza Zaharrean: "Chihiroren Bidaia".

Urriak 4, astelehena

10:00 Haurrentzako jokoak Ariztitxo frontoian. Izen ematea: aurrez, aginagaherria@gmail.com helbidean.

12:00 Jubilatuen hamaiketako

Aginaga sagardotegian.

Izen ematea: aurrez Arrate zahar egoitzan.

15:00 Karaokea Eliza Zaharrean. Izen ematea: momentuan bertan.

19:00 Toka txapelketa herrikoia Ariztitxo frontoian. Izen ematea: momentuan bertan.

Izen ematea: usurbilkultura.eus atarian (ekintza bakoitza baino bi egun lehenago).

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Euskara ikasi, euskaraz bizitzeko

Etumeta-AEK euskalergia matrikulazio kanpainan betean den honetan (usurbil@aei.eus / 607 609 379) euskalduntze bidea jorratzen ari den Maria Fernandez Delkader elkarrizketatu du NOAUA!k. Lekukotza interesgarria, euskararen ezagutzaren eta erabileraren inguruan eskaini diguna.

NOAUA! Euskararekiko lehen hartuemana noiz izan zenuen?

Maria Fernandez Delkader: Madrilgoa naiz, baina duela 12 urte Usurbila etorri aurretik 15 urtez bizi izan nintzen Bartzelonan. Euskararekiko lehen hartuemana bertan izan zen, Hizkuntza Eskolan, bikote laguna euskara irakaslea zen. Halere nire “patua” hona etortzea zen, nire aurreko bikotea ere Gernikakoa zen. Euskal Herriarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin dudaren harremana aspalditik dator. Betidanik izan da erakarria niretzat. Alabak hiru hilabete zituela etorri ginen Usurbila bizitzera. Segituan eman nuen izena euskaltegian.

Aldaketa handia izango zen?

Oso handia eta zaila hasieran. Niretzat aldaketa asko izan ziren aldi berean; hiri handi batetik herri txiki batera bizitzera etortzea, ama izan berria, lan egoera prekario samarra. Ez nuen ia inor ezagutzen eta hementxo hizkuntza euskara zen. Gauza batzuk ulertzen nituen



Maria Fernandez Delkader, euskalduntze bide ezin emankorragoa jorratu duen herritarra.

MARIA FERNANDEZ

“Benetan ni izateko eta nire bizi proiektua hemen garatzeko euskara ikasten buru-belarri jarri behar nuela konturatu nintzen”

baina bizimodua egiteko adina ez. Euskara ikasten hasi nintzen, baina lanpostu bat aurkitu eta klaseak utzi beharra. Lehenengo urteak hala izan ziren, hasi, utzi, berriz hasi... Benetan ni izateko eta nire bizi proiektua hemen garatu ahal izateko euskara ikasten buru-belarri jarri behar nuela konturatu nintzen. Arropa denda batean nenbilen lanean, lanpostu hura utzi eta euskara ikaste-ko urte oso bat hartzea erabaki nuen. Nahiko azkar egin nuen aurrera. Lehen urteetan klase presentzialak dira onenak, baina maila bat izanda eta ume txikiekin niretzat autoikaskuntza oso aukera ona izan da. Oso diziplinatua izan behar duzu, egunero ez dakit zenbat ordu pasatzen nituen liburutegian. Bakartxore-

kin mintzapraktika egiteko baliatzen nuen.

Ikasitakoa erabiltzen hasteko lehen egunak nola oroitzen dituzu?

Oso gustuko nuen dendetara joan eta euskaraz aritzea. Ez bakarrik euskaraz eskatu eta ordaintzea, elkarrizketa txikiak izatea baita. Etxean ere erabiltzen dut euskara. Niretzat erronka handiena bikotearekin euskaraz aritzea zen, gaztelaniaz elkar ezagutu bainakin. Bikote lagunak asko lagundu nau. Gure familia pixka bat desberdina da euskarari dagokionean; etxe askotan gurasoek umeei euskaraz hitz egiten diete baina gero beraien artean erdaraz aritzen dira. Gure etxean kontrakoa gertatzen da. Amaiak niri euskaraz hitz egiten dit beti, gure artean euskaraz aritzen gara. Amaiak seme-alabekin euskaraz hitz egiten du eta ni beraiekin bakarrik nagoenean erdaraz, nire jatorrizko hizkuntza baita. Beraiek hala eskatu eta eskertzen dute gainera.

Laurok mahaiaren bueltan gaudenean aldiz euskaraz aritzen saiatzen gara.

Euskara ikasteak ate berririk zabaldu dizu?

Ate bat da azkenean, mundu bat bizi, harremanak izan eta jendea ezagutzeko. Bestela, mugatua da, gauza asko galtzen dira. Euskara horretaz guztiaz gozatzeko ate bat da.

Ikasketa prozesuaren amaierara heldu omen zara.

Amaierara ez. Iaz, 3. perfila ateratu nuen. Poz-pozik nago. Ez nuke ikasitakoa ahazterik nahi eta orain nire gustuko zaletasunak euskaraz bizi nahi ditut. Azkenean euskaraz bizitzeko gai naizela sentitu nahi dut.

Zorionak jorratu duzun bideagatik.

Gustura, pozik naiz, baina ez da amaitu hemen. Bidea luzea da. Euskararekin ikasten eta hazten segi nahi dut.

Matrikulazio kanpaina betean dira euskaltegian. Zergatik, zertarako izena eman euskaltegian?

Niretzat ezinbestekoa da. Gainera Usurbilen oso gertu dugu. Udalak ere diru-laguntzak ematen ditu. Euskaltegira egunero joateko motibatua egon behar zara, baina merezi du. Giro polita sortzen da jendartearen eta emaitzak ere hor daude.

“Euskaraz hitz egiten jarraitzea eskatzen nuen”

NOAUA! Euskara erabiltzen hastea erraztu zitzaizun edo zurekin mintzatzen zirenek segituan jotzen zuten gaztelaniara?

Maria Fernandez Delkader: Nire kasuan normalean lehen hitza euskaraz entzun izan dut baina nire zailtasunen aurrean hizkuntzaz aldatzen

zuten batzuetan. Orain ez, baina orduan bai. Hasieran euskaraz hitz egiten jarraitzea eskatzen nuen, ni ere deseroso sentitzen bainintzen hizkuntza aldatuta. Euskara ikasten egonda, besteak euskaraz hitz egiten jarraitzeak niri askatasun handia ematen dit. Agian

hurrengo hitza gaztelaniaz esango dut baina zuk nirekin beti euskaraz hitz egin. Horrek euskarara itzuli behar naizela gogorarazten dit niri. Niretzat oso garrantzitsua eta lagungarria da. Kontuan izan, Kataluniatik nentorren, eta han elkarrizketa elebidunak oso arruntak dira,

gatazkarik gabe bizi dituzte. Zu katalanez aritu zaitezke eta ni gaztelaniaz eta ez da ezer gertatzen. Hemen hori oraindik oso zaila dela dirudi, baina posible da. Gaztelaniaz ari denak euskara ikasi nahi badu, entzuteko, edo dakiena esateko baliatu dezake egoera.

Matrikulazioa zabalik oraindik, hilabeteotarako ikastaro eskaintza zabalean

Ikastaro eskaintza zabala pres-tatu dute herriko taldeek.

■ Bertso-eskola

Martxan da berriz ere LH5-LH6 mailetan ikasten ari direnentzat. Saioak ostegun edo ostiraletan izango dira, 13:25-14:25 artean, Udarregi Ikastolan. Izen emateko whatsapp mezua helarazi daiteke 608 768 539 telefono zenbakira (Josu).

■ Lanbide Eskola

Langile nahiz langabetuentzako abendura arteko ikastaro eskaintza aurkeztu dute: fabrikazio mekanikoari lotutako saioak, administrazioa eta kudeaketa alorrei lotutakoak, argindarra, instalakuntza eta mantentze, energia eta urari lotutako gaiak buruzkoak. Ikastarook Lanbide %100ean diruz laguntzen ditu. Izena emateko: 943 36 46 00/667 415 810 (Whatsapp)/lhusurbil.eus

■ Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Esperientzia Eskola 55 urte-tik gorako pertsonen zuzendua dago. "Lan mundutik erretiroa hartu eta ikasteko grina duen orok eman dezake izena", Matia Institutuak eta Usurbilgo Udalak



Oiardo Kiroldegiko kirol eskaintzan matrikulatzeko epea ostegunean, irailaren 23an itxiko dute. Biharamunean plazen zozketa egingo dute.

BERTSO-ESKOLA

"Martxan da berriz ere LH5-LH6 mailetan ikasten ari direnentzat. Saioak ostegun edo ostiraletan izango dira, 13:25-14:25 artean, Udarregin"

antolaturiko ekimenean. Adineko pertsonen zuzendutako oroi-men ikastaroa, Lahar Elkargoak eta Udalak antolatua da. Batean zein bestean izen emateko epea zabalik izango da irailaren 24ra arte Gizarte Zerbitzuetan (943 377 110). Bietan ikasturtea urrian jarriko dute martxan. "Izena emandako jende kopuruaren ara-

bera zehaztuko dituzte taldeak eta ordutegiak", ohartarazi dute.

■ "Sexualitatea covid19 aurretik, bitartean eta ondoren"

Egunak: urriak 1, 8, 15 (ostirak), urriak 30 (larunbata). Ordutegia: ostiraletan 17:00-20:00 artean; larunbatetan, 9:30-13:30 artean.

Tokia: Potxoenea.

Matrikulazio epea: irailak 9-24 artean.

Irakasleak: Jon Imanol Etxabe Telleria (sexu aholkularia eta psikologoa) eta Iñaki Dorronsoro Maioz (UEUko sexologia sailburua 2018tik). Antolatzailerak: UEU/Udala.

■ Futbol Eskola

Usurbil F.T.-tik ohartarazi dute, irailaren 28 eta 29an eman ahaliko da izena Futbol Eskolan, 18:30-19:30 artean Haranen. Aurrez, guraso bilera deitu dute, irailaren 22an Haranen baita; 18:00etan, 2013 eta 2012an jaiotako gurasoei zuzendua, 18:30etan 2011-10 artean jaiotako ama eta aitentzat. Urriaren 8an lehen entrenamendua.

■ Oiardo Kiroldegia

Ikastaroetan izena online emateko azken eguna izango da irailaren 23a, bideotatik:

<https://labur.eus/HhmXA> (helduena)

<https://labur.eus/zjwgm> (haur eta gazteena)

Plazen zozketa irailaren 24ean egingo da eta segidan zerrendak argitaratuko ditu Usurbilgo Udalak.

■ Katekesia

Irailaren 26ra arte zabalik izango dute izen emateko epea. 1. mailakoek salbatoreparrokia@gmail.com helbidera idatzi edo 943 361 239 telefono zenbakira deitu beharko dute. 2. mailatik gorako haurren familiek emailaz jasoko dute izen emate orria eta beharrezko informazioa.

Emakumeen ahalduztze eskolako ikastaroak

Udal Parekidetasun Sailak zenbait ikastaro antolatu ditu. Izena emateko: parekidetasuna1@usurbil.eus edo 943 377 110.

■ "Amatasun bizigarria"

Bideratzailea: Ainara Gorostizu Mujika. "Gaur eta hemen amatasuna exijente eta zail egiten duten hariak ikusi eta teoria feministen eta amatasunaren historiako ekarpenekin, hausnarketa pertsonalekin eta talde dinamikekin amatasunaren

praktika eta esperientzia bizigarriagoak bilatzea izango da ikastaroaren egitekoa, egite horrek dakarren ahalduztzea eta interpelazio politikoa ere helburu izango ditugularik".

Saioen egutegia: urriak 6, 20 eta azaroak 3 eta 17, 17:00-19:00 artean Potxoenean.

Izena emateko epea: urriak 4.

■ "Menopausia. Hausnarketarako unea" (gatzelaniaz)

Bideratzailea: Pepa Bojo Balles-

ter.

Zehaztasunak: "Gure bizitzako bigarren etapa, heldutasunaren etapa, modu sortzaile eta aberasgarrian bizitzen prestatzeko pentsatuta dago tailer hau, irudi, bizimodu eta energia aldaketari aurre egiten ikasiz".

Saioen egutegia: urriaren 7tik abenduaren 16ra. Ostegunetan, 17:00-19:00 artean, Potxoenean.

Izena emateko epea: urriaren 5a.

■ Biodantza

Bideratzailea: Eider Zuriarrain. Zehaztasunak: "Gorputz adierazpen sistema bat izateaz gain, garapen pertsonalerako proposamena ere bada non, talde testuinguru batean, musika, mugimendua eta ariketa/dantza antolatuen bitartez, gure gaitasun naturalak garatzen diren". Saioen egutegia: urriak 5-abenduak 14, asteartean, 15:30-17:00 artean, Kiroldegian. Izena emateko epea: urriak 4.



Anerreka / Naturkon

Maialen Chou-rraut piraguistak 2021eko Japoniako Olinpiar Jokoetan irabazitako dominaren harira, ur bizien kanala eraikitzeak asmoa jakinarazi du Eusko Jaurlaritzak Oria ibaian, zehazki, Usurbilgo udalerrian dagoen Orbeldiko presaren eremuan. Alkateak egitasmo honen prozedura administratiboaren gako nagusienak argitu ditu sare sozialen bidez.

Jarduera baimena bideratzeko, ezinbestekoa den Lurzoru Ez Urbanizagarri-rako Plan Bereziari hasierako onespina eman zion Usurbilgo alkateak dekretu bidez, baina, oraindik Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak onespina eman behar du, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu honen interes publikoa aitortu behar du.

Gipuzkoako Piraguismo Federazioak sustatzen duen ur bizien proiektu hau, Oria ibaian bertan kokatuta dagoen Orbeldiko presa aprobetxatuz, garai batean bertan zegoen argindarra eskuratzeko azpiegituraren hondarretan eraiki nahi dute.

Zehazkiago adierazita, zentral zaharra eraitsi eta pabiloi berri bat eraikitzea da asmoa, ur ibilgua mugatzen duen kanal zaharra eraberrituz, eta luzatuz, 195 metro luzera izan dezan. Kanal honek Oria ibaitik hartuko luke ura: 12.000 l/s kaudala aurreikusi da.

Azpiegitura berria lehendik eraldatuta dagoen eremuan egingo bada ere, eremu horrek Oria ibaiaren berreskurapen ekologikorako garrantzia handia

Orbeldiko presa eraistearen garrantzia



“Orbeldiko presa eraistea behar beharrezkoa da Oria ibaiaren funtzionalitate ekologikoa berreskuratuz, bertako biodibertsitatea mantentzeko”.

ANERREKA/NATURKON

“Zuhurtzia-printzipioa lehenetsi behar dugu, biodibertsitatea kaltetzen duten faktoreak eta esku-hartzeak saihestuz. Honek du interes orokorra, kasu honetan, Orbeldin”

izaten jarraitzen du. Ekolur enpresak Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egindako “Gipuzkoako oztopoak iragazkortzeko plan gidaria 2020” txostenean jasotzen da Orbeldiko presa dela Oria ibaiaren lehen oztopoa, eta txosten horretan presa eraisteko egitasmoa planteatzen da; txostenean jasotzen denez, “arrainentzako pasabideak oztopoetan jarriz ibai-iragazkortasunaren arazoa konpontzen dela uste da, hala ere, zeharkako oztopoek ibai-ekosistemetan dituzten ondorioak, haien funtzionaltasuna eta dibertsitate biologikoa kontuan hartzen badira, irtenbiderik onena oztopoa erabat eraistea da”.

Orbeldiko ur bizien kanal berriaren proiektuak arrainentzat pasabide edo kanal

berria egitea aurreikusten du, baina aipatutako txostenaren emaitzak argiak dira: “Beraz, edozein pasabidearako eraginkortasun-balioak, oro har, diseinatzen diren helburuak lortzetik urrun daude, hau da, % 90etik gorako eraginkortasuna lortzea, batez ere oztopo-dentsitate handia duten ibaietan, hala nola Gipuzkoan”.

Hau guztia onartu eta gero, enpresa berak (Ekolur) egin duen ur bizien kanalaren plan bereziaren Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoaren txostenean, Orbeldiko presa dagoenean mantentzea proposatzen duen ur bizien kanalaren eraginak “onargarriak eta sortuko duten onurerekiko proportzionatuak” direla jasotzen da.

Txosten horretan zehazten da, esaterako, eremu hori bizitoki izan dezaketen 4 animalia-espezie “desagertze arriskuan” daudela (tartean, kinka larrian dagoen bisoi europarra), beste 4 “zaurgarriak” direla, 7 espezie “arra-roak” direla eta 14 “interes berezikoak”.

Idatzita dago, ziurrenik, eremu horretan intereseko es-

pezieak diren erreketako eta erreka-ertzeko basoetako espezieak egotea oso posible dela, edota, ferra-saguzar mediterranearentzat “Interes Berezikiko Eremua” dela. Halako eremuan, lehendik dagoen presa mantendu eta kanal berria egitea aurreikusten duen planaren ingurumen eraginak onargarriak direla kontsideratu da.

Orbeldiko presa eraistea behar beharrezkoa da Oria ibaiaren funtzionalitate ekologikoa berreskuratuz, bertako biodibertsitatea mantentzeko.

Aldundiak berak onartzen du “Gipuzkoako oztopoak iragazkortzeko plan gidaria 2020” txostenean: “biodibertsitatearen eta habitat naturalen kontserbazioak gizartearentzako balioa izan dezakeen garrantzia azpimarratu behar da, ez bakarrik gozatzeagatik, baita aldaketan antropikoen edo naturalen ondorioak arintzeko duen gaitasunagatik ere.

Ekosistemen asalduren edo erresilientziaren aurrean berreskuratzeko gaitasun horrek oso balio handia du klima aldaketara egokitzeak egungo esparruan, baina zaila da kuantifikatzea”.

Horrexegatik zuhurtzia-printzipioa lehenetsi behar dugu, biodibertsitatea kaltetzen duten faktoreak eta esku-hartzeak saihestuz. Honek du interes orokorra, kasu honetan, Orbeldin.

Usurbilgo Anerreka Ingurumen Elkartea eta Naturkon (Gipuzkoako natur talde eta talde ekologistak)

Matxura bat, Aranerrekako ur zikinen eragilea

Azken egunotan Aranerrekako ikusi diren ur zikinen arrastoaren jatorria aurkitu eta argitu du Usurbilgo Udalak. Ohar bidez jakinarazi duenez, Errekatziki inguruan leherturiko hodi batek eragin ditu azken egunotako ur zikinen isurketak.

“Ezohiko isurketekin kezkatuta” Udalak hodi honen egoera aztertzeke kamera bat pasa du hain zuzen, herritar talde batek gertatzen ari zena ohartaraziz kartela jarria duen Aranerrekako zonaldean eta “hormigoizko hodiaren zati bat lehertu” dela ikusi ahal izan dute. “Hormigoizko hodi handi bat zen lehertu dena, 64 metroko luzerakoa. Gaur egun, PVC materialarekin egin ohi dira, eta halakoa eskatu du udalak. Materiala eskuan, egun gutxian egin daiteke obra, baina eguraldiak baldintzatuko du”, ohartarazi du Udalak.

Laster konpontzekotan dira matxura. “Errekatziki inguruan lehertu den ur zikinen hodia konponduko du udalak datozen egunetan: aurreikuspenen arabera, aste honetan iritsiko da hodi berria, eta eguraldiak ahalbidetu bezain pronto jarriko dute”, iragarri dute.

Gaia konpondu eta bideratzeko lanean ari gara

Herritarrek gai honen bueltan jakinarazitako kezkekin bat egiten dutela nabarmendu dute Usurbilgo Udaletik eta gai hau bideratzeko lanean jarraitzen dutela. “Jakitun gara Aranerrekako ditu-



Irailaren 11n Aranerrekak eremu batean zuen itxura, aurreko asteke aldizkarian erakutsi genizuen moduan.

USURBILGO UDALA
“Errekatziki inguruan
lehertu den
ur zikinen hodia
konponduko du Udalak
datozen egunetan”

gun isurketekin, eta horretan ari gara lanean azken hilabete hauetan. Arretaz irakurtzen ditugu herritarrek helarazitako kezak eta kezkek, eta haiek bezala, Udalak ere kezkatuta dago: gaia konpondu eta bideratzeko lanean ari gara”, nabarmendu du Lur Etxeberria zinegotziak.

Ur zikinen gaia udalerriri honetan zertan den, horren berri eman zuten iragan udaberrian. Une honetan, “Kalezarko da bereziki jarraitzen ari den guztiak bat. Batetik, Matia Kalezarren egiten ari den obrak aprobetxatuko ditu udalak zati horren saneamendua hobetzeko [Kalezarren erdigunetik N634 al-

dera gelditzen den zatian]: euri urak eta ur zikinak batera jaso izan dira Ugaldean, eta hori bereizteko obra egingo du udalak. Infolurrek jada idatzi du proiektu hori, baita Udalaren eskura jarri ere: obrak 134.000 euroko kostua du, eta 2022ko aurrekontuetan islatzeko asmoa du udal-gobernuak. Bestetik, Kalezarren erdigunetik Aranerrekarako zatian, euri urak eta ur zikinak bereizi gabeko bost puntu zituen identifikatuta, etxebizitza partikularrenak direnak: horietako bi konponduta daude dagoeneko, eta beste hiruek hori bideratzeko aurrekontuak eskatuak dituzte”, berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Aginagara begira ere badira. “Aginagako saneamendua hobetzeko proiektua idazteko eskatua dio udalak Injelani, euri urak eta ur zikinak Añarbek eta Euskal Ur Agentziak Aginagan egingo duten kolektore nagusira bereizita bideratzeko”.

%86,59an, gaikako bilketa

Hondakinen kudeaketari lotutako datu berriak ezagutarazi ditu Usurbilgo Udalak. Zehazkiago esanda, 2021. urte honetako lehen sei hilabeteak, urtariletik ekainerako tarteari dagozkionak. %86,59ko gaikako bilketa du Usurbilek. Tarte berean duela urtebetetik puntu bat murriztu da, %87,26tik %86,59ra. Baina era berean, iazko urte osoko ehunekoa aintzakotzat hartuta, puntu bat igo da, 2020ko gaikako bilketako urteko bataz bestekoa %85,77koa baita. Hiri hondakin gehiago kudeatu dira aurtengo lehen sei hilabeteetan; 2021eko urtariletik ekainera 1.560 tona, 1.455 tona iaz. Errefusaren kasuan ere antzeko joera antzeman du Udalak; 185 tona errefus bildu zituzten iazko urtariletik ekainera, aurtengo lehen sei hilabeteetan 209 tona. Udalak nabarmendu duenez, “2020a ezohikoa izan zen, zentzu guztietan, covid19ak baldintzatuta, eta eragina izan zuen hondakin-gaikako bilketan ere”.

Zaintza eredu, aztergai

Hileroko bilkurei heldu die berriz zaintza ereduari lotuta udaberrietik abian den parte hartze prozesuaren bueltan osatua izan eta “zaintzaren ertz guztiak ordezkatzen” dituen talde eragileak. Informazio gehiago: usurbil.eus atarian.

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza
 Orokorra

693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL

ERAMATEKO!!!

 -EGUNEKO MENUA
 -KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
 BASERRIA · JATETXEA
 www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**


Otar-Goxo
 Elikagaiak
 Zubiaurrenea, nº2
 ☎ 943 36 55 81
 20170 Usurbil

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean asteartetik ostiralera, eguerdiatarako soilik. 626 686 036

Emakume bat behar da umeak

zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Hau-

rren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiez@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintze-

ko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten. 620081572

BESTELAKOAK

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bouchrahajar@outlook.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan utzi daitezke. Asteartetan: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Larunbatetan: 9:00-13:00.

**Zorionak Jare!!!**

Irailaren 27an egingo dituzu 5 urte. Muxu haundi bat familiaren partez eta ondo ondo pasa!!!

**Zorionak Txiki!**

Beste 46 urteetan bidela-gun nahi zaitugulako... Jo ta ke!!!

Heriotzak**Iñaki****Errazquin****Echarri**

Irailaren 19an

hil zen

56 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 24 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 25 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 28 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 29 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 30 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 02 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 03 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda iraila

23 osteguna

■ **Hitzaldia: "Herriarentzako lurak eskuratzaren onura".** 18:30etan Sutegin. Antolatzailea: Anerreka ingurumen elkarte.

24 ostirala

■ **Presoen eskubideen aldeko mobilizazioa.** 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzailea: Sare.

25 larunbata

■ **"Usurbilgo industria eta komertzioetan biltzen den hondakin errefusaren karakterizazio publikoa".** 12:00etan Dema plazan. Antolatzailea: Anerreka ingurumen elkarte.

Bigarren elkarretaratzea, astebeteko tartean

Arrasaten antolatua zuen martxaren bezperatan "presio izendaezina" pairatu ostean, hitzordu hura bertan behera utzi eta herriz herri antolatu zituen elkarretaratzeak Sarek irailaren 18an. Usurbilen baita, Mikel Laboa plazan, bizi osorako espertxe zigorren aurka eta giza eskubideen alde. "Sarek ez dio utziko inoiz pertsona guztien giza eskubideak defendatzeari eta haien alde mobilizatzeari", adierazi zuten. "Bizikidetzan eta konponbidean oinarritutako etorkizunaren alde" egiteko "elkar ulertzeko espazioak" sortzea eskatu zuten.



Irailaren 18an egin zuten elkarretaratzeko irudia. Ostiral honetan hurrengo mobilizazioa.

Azken orduko mobilizazio horren ondotik, hilerio moduan, ostiral honetan presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Lurren herriratzearen onurei buruzko hitzaldia

Itsasondoko esperientzia aztergai izango du Anerreka ingurumen elkarteak, irailaren 23an 18:30etan Sutegin antolatu duen hitzaldiak, udalerrri hartako alkate, biologo eta botanikari Iñaki Aizpururen eskutik. Azken urteotan, partikularrek behar ez zituzten hainbat lursail erosteari ekin diote udalerrri honek duten ondarea babesteko.

Usurbilgo errefusaren karakterizazioa

Industria eta merkataritza alorreko errefusaren karakterizazioa jendaurrean zuzenean egiteko ekitaldia antolatu du Anerreka ingurumen elkarteak irailaren 25ean 12:00etan Dema plazan. Zero zabor bidean, "neurketak erakutsiko digu zertan daukagun hobetu beharra". Egingdako neurketaren emaitza ezagutaraziko dute gero.

Datozenak

"Satiro" antzezlan eta tertulia

"Gizonen sexualitateak hizpide" hartuko ditu, Usurbilgo Udalak urriaren 1erako 19:00etan Sutegin antolatu duen "Satiro" antzezlanak eta segidan programatu duten tertuliak. "Umorea eta jolasa erabiliz, gizonen sexualitateak hartzen ditu hizpide nagusi Satiro antzezlanak. Desirak, gorputza eta barneratutako epaiak gurutzatzen diren ideien lanketarako aproposa, gazte zein heldu eta gizon zein emakumeentzako", antolatzaileen esanetan. Antzezlaneko aktore protagonista, Xanti Arrizabalaga bertan dela tertulia iragarri du, tratuan, parekidetasun eta sexologia arloetan lanean diharduen Arremanitz kooperatibak. Hitzordurako izena irailaren 29ra arte bideratu ahalko da, usurbilkultura.eus plataforman.

Santuenea, urrira begira

Kultur Biraren ondotik, ekintza gehiago urrian Santuenean. Hilaren 23an, larunbatez, ginkana, ur jolasek eta musikak giroturiko arratsalde pasa. Horrez gain, josten ikasteko tailerra ere iragarri du Santuenea Elkartek urriaren 22 eta 29rako, 17:00-19:00 artean, Mari Carmen Orozekin. Informazio gehiagorako: 670 027 731.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
karta · oilasko erreak, pizak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com
600 024 825

www.noaia.eus
USURBILGO ATARIA

Antxi
bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA (22:00tan itxita)
943 362725
688 690 361

GERTU

**USURBILGO HERRI
MERKATARITZA,
HERRITARRAREKIKO
GERTUEN,
ZERBITZURIK ONENA
EMATEKO**

hurbilago

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



Usurbilgo Udala

Ongi etorri!



mundo animal



BISITA EZAZU URBILGO KIWO KO DENDA BERRIA

470 m2 baino gehiago animalei eta hauen zaintzarako produktuei eskainita. Langile espezializatuekin, mota guztietako animalien inguruan aholkularitza onena emateko.